

ZARAUZKO LANDA-EREMUKO EMAKUMEEN EGOERA AZTERTZEKO BEKAREN DEIALDIA

1. Oinarriak
2. Helburua
3. Beka eskatzeko baldintzak
4. Eskaerak
5. Bekaren zenbatekoa
6. Laguntza emateko prozedura
7. Tramitazioa
8. Ebazpena
9. Onuradunen betebeharrak
10. Beka ordaintzea
11. Bekaren xedea justifikatzea
12. Publizitatea
13. Beka itzultzea
14. Araudia

1. OINARRIAK

1.1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da Zarauzko landa-eremuko emakumeen egoera aztertzeke beka norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea. Beka horrekin, landa-eremuko egoera sozioekonomikoa, kulturala eta politikoa aztertuko da, bertan gertatzen diren genero-desberdintasunak identifikatuko dira, eta horiek gainditzeko estrategiak planteatuko dira.

Honako lan hauek aurkeztu daitezke:

- Emakumeek landa-eremuan dituzten lan baldintzak eta aukerak ikertzen dituen proiektua.
- Landa-eremuetan bizi diren emakumeek oinarrizko zerbitzuetara iristeko duten modua eta horien kalitatea (osasuna, hezkuntza eta azpiegitura) aztertzen dituen proiektua.
- Landa-eremuko emakumeek kultura-ondarearen zaintzan eta garapen iraunkorraren sustapenean duten zeregina ikertzen duen proiektua.
- Landa-eremuan emakumeen eskubideak gauzatzean eta erabakiak hartzean eragina duten dinamika familiar eta komunitarioak aztertzean dituen proiektua.
- Landa-eremuko emakumeen ahalduntze ekonomikorako eta lidergorako estrategiak ebaluatzen dituen eta landa-ingurunean emakumeen autonomia eta negoziazio-gaitasuna hobetzeko estrategiak ikertzen dituen proiektua.
- Gobernuaren politikek eta programek landa-eremuko emakumeen bizitzan duten eragina aztertzen duen proiektua, bai eta genero-desberdintasunei aurre egiteko eta komunitateen garapen integrala sustatzeko duten eraginkortasuna ebaluatzen duena.

1.2. BEKA ESKATZEKO BALDINTZAK

Bekaren eskatzaile izan daitezke honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Ikerketa-beka honetara pertsona fisikoak (banaka edo taldean) eta pertsona juridikoak aurkeztu ahal izango dira.
- Bekak jaso ahal izateko, hautagaiak unibertsitateko ikasketak izan beharko dituzte (erdi edo goi mailakoak) .

Gainera, beka ezingo du jaso ondorengo egoera batean dagoen pertsonak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13. artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean daudenak.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

Eskatzaileak lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiazta dezake onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien orde, erantzukizunpeko adierazpenak aurkez daitezke.

1.3. ESKAERAK

Bekak emateko prozedura ofizios hasiko da, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako deialdiaren bitartez. Eskaerek Parekidetasun Departamentuaren urteko deialdian zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

Zarauzko Udalak zuzenean egiaztatuko ditu datuak sektore publikoko edozein erakundetan. Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo ditu: ea interesdunak betetzen dituen Udalarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin dituen zerga-betebeharrak. Interesduna egiaztatze horren alde ez badago, eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Eskaeretan deialdian zehazten diren agiriak erantsi beharko dira, eta honela aurkeztu ahal izango dira:

Pertsona fisikoak Parekidetasun Departamentuko urteroko deialdian zehaztutako epean egin ahalko dute eskaera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

- Udaleko web-orriko Erregistro Elektronikoa (www.zarautz.eus), tramiteen atalean.

- HAZen (Kale Nagusia 29), ordutegi honetan:
Astelehenetik ostiralera: 07:30-15:00
Ostegunean: 07:30-19:00

Pertsona juridikoek elektronikoki aurkeztu behar dute, derrigorrez.

1.4. BEKAREN ZENBATEKOA

5. atalean adieraziko da bekaren zenbatekoa eta zein partidatik egingo den deialdia.

1.5. BEKA EMATEKO PROZEDURA

Beka bakarra izango da, eta norgehiagoka araubidez emango da. 6. atalean adieraziko da zein irizpide erabiliko dituen balorazio batzordeak aukeraketa egiteko.

1.6. TRAMITAZIOA

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak ondorengoak izango dira:

- Instrukzioa: Parekidetasun teknikaria.
- Balorazio Batzordea: Kide anitzeko organo bat izango da, besteak beste, Parekidetasun zinegotzia, ikerketa feministan aditu bat, Zarauzko Emakumeen* Kontseiluko kide bat eta landa-eremuko elkarte bateko kide bat.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Parekidetasun Departamentuak tramitatuko du beka emateko prozedura; beraz, berak zehaztu, eskuratu eta frogatuko ditu, ofizioz, ebazpen-proposamena egiteko behar diren datuak.

Parekidetasun Departamentuak beka-eskariari buruz egingo duen aurre-ebaluazioarekin hasiko da instrukzio-fasea. Aurre-ebaluazioak egiaztatuko du (i) eskatzaileak betetzen dituela bekaren onuradun izateko jarritako baldintza guztiak eta (ii) aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Parekidetasun teknikariak beka-deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio-txostena egingo du.

Eskaerak ebaluatu ondoren, behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du Balorazio Batzordeak, eta organo eskudunari aurkeztuko dio ebatzi dezan.

Ebaluazioaren emaitza beka ukatzekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, interesdunei 10 eguneko epea emango zaie, entzunaldi-tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

1.7. EBAZPENA

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Ebazpena arrazoitu egingo da; alegia, prozeduran egiaztatu egin beharko dira onartutako ebazpenaren oinarriak, eta horretarako kontuan izango dira beka emateko arauetako irizpide objektiboak.

Beka emateko ebazpenak argi eta garbi adierazi beharko ditu honako hauek: xedea, eskatzailea edo eskatzaile-zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, eta bekaren oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenean adierazi egin beharko dira haren aurka egiteko dauden errekurtsio-bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko; eta hori guztia, interesdunek beste edozein errekurtsio-bide erabiltzeko eskubideari utzi gabe.

Oinarri hauetan aurreikusten den beka emateko prozeduraren barnean gertatzen diren ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, indarrean dagoen araudiak jasotzen duenaren arabera.

1.8. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunen betebeharrak:

- a) Beka emateko jarritako betekizun eta baldintzak beteko ditu.
- b) Organo-emaeleak indarrean dagoen legediaren arabera egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartu eta haiek egiten lagunduko du; era berean, kontrol-organoek egindako egiaztapen eta kontrol finantzieroko beste edozein jarduera ere onartu eta egiten lagunduko du; eta aurreko jarduerak egiteko eskatzen zaion informazio guztia emango du.
- c) Zarauzko Udalarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta edukiko ditu.
- d) Lau urteko epean gordeko ditu hartutako fondoan aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak (dokumentu elektronikoak barne), egiaztapen- eta kontrol-jardueren aztergai izan daitezkeelako.
- e) Edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraziko du.
- f) Jasotako fondoak itzuliko ditu, indarreko araudian aurreikusitako kasuetan.
- g) Lanean jasota geratuko da Zarauzko Udalaren dirulaguntza jaso duela.
- h) Onuradunak indarrean dagoen araudi aplikagarri guztia errespetatu beharko du; eta bereziki 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- i) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudien arabera honako baldintza hauek bete beharko ditu.
 - Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, genero-ikuspegia txertatu beharko du diruz lagundutako programan edo jardueran.
 - Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazio inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen

presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu.

- Beka justifikatzeko memorian sexuaren arabeko datuak eman beharko ditu (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
- Bermatuko du antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.

1.9. BEKA ORDAINTZEA

Laguntzak ordaintzeko, aurrez Parekidetasun Departamentuaren aldeko txostena beharko da. Bertan egiaztatuko da beka emateko oinarrietan jarritako baldintzak bete direla.

Beka bi zatitan ordainduko da, banku-transferentzia bidez. Dirulaguntzaren lehen ordainketa bekaren behin betiko ebazpena emandakoan egingo da (kopuru osoaren % 60). Gainerako % 40a, lanak amaitu eta aurkezpena egiten denean.

1.10. BEKAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

11. atalean zehazten den azken eguna baino lehen justifikatu beharko da beka. Horretarako, txostenaren ale bat aurkeztu beharko da (PDF formatuan). Baldintza hori betetzen ez bada, beka itzuli egin beharko da.

1.11. PUBLIZITATEA

Emandako bekaren informazioa Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da.

Bestalde, bekaren onuradunak diruz lagundutako lanaren izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du. Publizitate horretan, lehentasunezko tokian, Zarauzko Udalaren logotipoa eta esaldi hau azalduko da (lanaren azalean edo hasieran): "*Jarduera honek Zarauzko Udalaren laguntza jaso du*".

Finantzaketa publikoari buruzko aipamena ere egingo da lanaren aurkezpena egiten denean.

1.12. BEKA ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo bekaren emakidan jarritako edozein baldintza betetzen ez bada, beka berriro aztertuko da, eta, horren arabera, Zarauzko Udalak aukera izango du hura atzera botatzeko eta jasotakoa itzul dadila eskatzeko, indarreko legedian aurreikusten diren baldintzetan.

1.13. ARAUDIA

Oinarri hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); eta ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA.

2. HELBURUA

1.1 atalean azaldu da zein den bekaren helburua.

3. BEKA ESKATZEKO BALDINTZAK

1.2 atalean azaldu dira beka eskatzeko baldintzak.

4. ESKAERAK

Eskatzaileek eskaera-orria bete beharko dute eta horrez gain ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskatzailearen nortasun agiria.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- c) Eskatzailea onuradun izateko debekurik ez duela adierazten duen ziurtagiria.
- d) Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetza ziurtatzen duen agiria.
- e) Eskatzailearen Curriculum Vitae.
- f) Beka jasotzeko aurkeztu den proiektua. Proiektu horretan, ikerketaren izenburua, esparrua, aurrekariak eta xedea zehaztuko dira. Hau da, ikergaiaren testuinguru teorikoa, helburuak, metodologia, kronograma, erabiliko diren baliabideak eta biografia. Lan-proiektuak gehienez 15 orrialde izango ditu.

Bekaren eskaera 20 egun balioduneko epean egin ahal izango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

5. BEKAREN ZENBATEKOA

Deialdi honetan 6.000 euroko beka emango da, Zarauzko Udalaren 2024ko Aurrekontu Orokorretako partida honetatik: 1301.481.01.231.50.

6. BEKA EMATEKO PROZEDURA

Beka bakarra izango da, eta norgehiagoka araubidez emango da.

Aurkezten diren proiektu guztien artean puntuazio-banaketa bat egingo da, eta, ondorioz, lehentasun-ordena bat proposatu. Ondorengoak izango dira proiektuak baloratzeko erabiliko diren irizpideak:

Irizpideak:

- Proiektuaren txostenaren kalitatea: 40
- Proiektuaren originaltasuna: 10
- Azterketa honen antzeko ikerketa bereziak edota lanak egin izana: 10
- Prestakuntza landa-eremuan edo berdintasunean: 10

7. TRAMITAZIOA

Tramitazioari dagokion informazioa 1.6 atalean jaso da.

8. EBAZPENA

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Ebazpena arrazoitu egingo da; alegia, prozeduran egiaztatu egin beharko dira onartutako ebazpenaren oinarriak, eta horretarako kontuan izango dira beka emateko arauetako irizpide objektiboak.

Beka emateko ebazpenak argi eta garbi adierazi beharko ditu honako hauek: xedea, eskatzailea edo eskatzaile-zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, eta bekaren oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenean adierazi egin beharko dira haren aurka egiteko dauden errekurtsio-bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko; eta hori guztia, interesdunek beste edozein errekurtsio-bide erabiltzeko eskubideari utzi gabe.

Deialdi hauetan aurreikusten diren beka emateko prozeduraren barnean gertatzen diren ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, indarrean dagoen araudiak jasotzen duenaren arabera.

9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1.8 atalean azaldu dira onuradunen betebeharrak.

10. BEKA ORDAINTZEA

Laguntza ordaintzeko, aurrez Parekidetasun Departamentuaren aldeko txostena beharko da. Bertan egiaztatuko da beka emateko oinarrietan jarritako baldintzak bete direla.

Beka bi zatitan ordainduko da, banku-transferentzia bidez. Dirulaguntzaren lehen ordainketa bekaren behin betiko ebazpena emandakoan egingo da (kopuru osoaren % 60). Gainerako % 40a, lanak amaitu eta aurkezpena egiten denean.

11. BEKAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

2024ko abenduaren 31 baino lehen justifikatu beharko da beka. Horretarako, txostenaren ale bat aurkeztu beharko da (PDF formatuan). Baldintza hori betetzen ez bada, beka itzuli egin beharko da.

12. PUBLIZITATEA

1.11 atalean zehaztu da publizitatea lanean nola egingo den.

13. BEKA ITZULTZEA

Bekaren emakidan jarritako edozein baldintza betetzen ez bada, beka berriro aztertuko da, eta, horren arabera, Zarauzko Udalak aukera izango du hura atzera botatzeko eta jasotakoa itzul dadila eskatzeko, indarreko legedian aurreikusten diren baldintzetan.

14. ARAUDIA

Deialdi honeta aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko EAO); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko EAO); eta ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA.